

DONIBANE LOHIZUNE - HONDARRIBIA LASTERKETA ERDI MARATOIA 2025

1. artikulua. Probaren izena.

Hondarribiko HONDARRIBIA KIROL TALDEA eta Donibane Lohizuneko UR JOKO kirol eta kultur elkarteek DONIBANE LOHIZUNE – HONDARRIBIA KLASIKA LASTERKETA-probaren XXVI. edizioa antolatzen dute **2025ko urriaren 26an, goizeko 10:00etan**, naziotasun guztietako gizon zein emakumeentzat. Nazioarteko Federazioaren arauen arabera neurtu ostean, ibilbideak ofizialki **DONIBANE LOHIZUNE - HONDARRIBIA LASTERKETA ERDI MARATOIA** izena hartu du.

2. artikulua. Ibilbidea.

Lasterketa errepidean egingo da eta **hogeita bat kilometro ta laurogeita hamazazpi metroko luzera** (21,097km) izango du. Honakoa izango da ibilbidea: Donibane Lohizuneko *Folch plazan irteera, Ch de Gaulle zubia; Ziburun Maurice Ravel kalea, Pierre Benoit etorbidea, Erlaitzako errepidea (Corniche, Urruñia), Hendaia, Itxas etorbidea, Txingudiko Badiaren etorbidea, De Gaulle generalaren etorbidea, Hendaia-ko geltokia, Irungo Nazioarteko Zubia, Iparraldeko hiribidea, Kolon pasealekua, Hondarribia kalea, Mendelu kalea, Amutalde, Aireportuko errepidea, Minasoroeta kalea, Kale Nagusia, Azken honetan egongo da HELMUGA, HONDARRIBIAN.

*Behin betiko irteera puntua administrazio-baimenen zain dago.

3. artikulua. Denbora-kontrola.

Ibilbidea egiteko gehienezko denbora 2 ordu eta 45 minutukoa izango da. Tarteko bi kontrol gune izango dira, bata 10. kilometroan, gehienez 1 ordu eta 20 minutuan igaro beharko dena, eta 15.ean bestea, gehienez 2 orduetan gainditu beharko dena. Ez betetzekotan, korrikalariak lasterketa utzi egin beharko du. Nahi izanez gero, "erratz auto" delakoan sartu ahal izango du. Halakorik egin ezean, antolakuntzak ez du segurtasunaren ardurarik izango.

4. artikulua. Izen ematea, egutegia, dortsala eskuratzea eta baliogabetzeak.

Parte-hartzaile orok **dorsal egiaztagarri ofiziala** eraman beharko du soinean. Dortsala **www.donibane-hondarribia.com/eu/izen-emateak** atarian izena emanda lortu daiteke, beharrezko ordainketa eginda.

Azpimarratzen dugu, Frantses Atletismo Federakuntza (FFA) araudiaren arabera, korrikalari bakoitzak hurrengo opziotako bat beteko duela:

- 1) Mediku-ziurtagiri eguneratua (ziurtagiria ez da 2024ko urriaren 26a baino lehen egina egongo) edo karrera egunean iraungi gabe dagoen atletismo edo triatloi kirol-baimena aurkeztu.
- 2) FFaren osasunaren prebentziorako ikastaroa burutua izatea (www.pps.athle.fr).

Bai ziurtagiria edo bai PPS-aren zenbakia inskripzioen aplikaziora igoko da, beranduenez 2025/10/24an.

Gogoratzen dugu ere, proba hortan, parte hartzeko derrigorrezkoa dela 18 urte ukatea berantenik probaren bezperan.

Honako izen emate egutegia eta prezioak ezarri dira:

- Izen emate aurreratua 2025/03/01-etik 2025/06/30ra, 34€ + kudeaketa administratiboko gastuak. Prezio hau inskribatutako lehenengo 1000 korrikalarietara mugatzen da. Hortik aurrera, hurrengo prezio-tartera igoko da inskripzioa.
- 2025/07/01tik 2025/08/31era, 39€ + kudeaketa administratiboko gastuak. Prezio hau inskribatutako lehenengo 2500 korrikalari arte mugatzen da. Hortik aurrera, hurrengo prezio-tartera igoko da inskripzioa.
- 2025/09/01tik 2025/09/30era, 44€ + kudeaketa administratiboko gastuak
- Azken minutuko izen ematea 2025/10/01etik 2025/10/13era, 49€+ kudeaketa administratiboko gastuak

Gehienez 3700 parte-hartzaile izango dira.

Lasterkari bakoitzak, dortsala eta txip egiaztagarriarekin batera, probaren kamiseta oroigarria jasoko du.

Postaz dortsala bidaltzeko aukera

Abuztuaren 31a baino lehen izen ematen duten lasterkariek aukera izango dute dortsala etxean jasotzeko (5,75€ kudeaketa administratiboko gastuak .- opzioa).

Gogorarazten dugu, araudi honen 4. puntuaren arabera, dortsala jasotzeko mediku-ziurtagiria, atletismo/triatloi kirol-baimena edo FFaren osasunaren prebentziorako ikastaroa burutuaren ziurtagiria aurkeztu behar dutela.

Izen ematea baliogabetzea.

Lasterkaria probaren egunean irteeran egotea galarazten duen osasun-kontu, lesio edo bestelako arrazoi larriren bat tarteko bakarrik baliogabetu ahal izango du izen ematea, eta orduan bakarrik baliogabetuko da partzialki haren zenbatekoa.

Izen ematea ezeztatzeko derrigorrezkoa da atxikitako inprimakia bete eta dagokion mediku-ziurtagiria eranstea. Ezeztatze-eskakizunak **2025ko abuztuaren 31era** arte bakarrik onartuko dira.

Izena ematean ordaindutako kopurua dena dela, itzuliko den zenbatekoa, gehienez 20 eurokoa izango da.

Jabetza aldaketak

Antolakuntzak ezarritako izen-emate sistemaren bitartez, jabetza aldaketak 2024/08/31era arte egin ditzakete parte hartzaileek

5. artikulua. Lasterketa bertan behera uztea eta korrikalarien kupoa mugatzea

Antolakuntzak beretzat gordetzen du proba bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea, ezinbesteko arrazoiengatik, osasun-arrazoiengatik edo Frantziako eta/edo Espainiako agintariek lasterketaren ohiko ibilbidean ezarritako murrizketengatik.

Froga burutu ezin bada, honako konpromiso hauek hartzen ditu antolakuntzak:

PROBA IRAILAREN 1a BAINO LEHEN EZEZTATZEN BADA

Antolakuntza arduratuko da izen ematean ordaindutako zenbatekoa bere osotasunean 10 euro kenduta itzultzea, data horretarako izena eman duten korrikalari guztiei.

PROBA IRAILAREN 1aren ONDOREN EZEZTATZEN BADA

Antolakuntza arduratuko da izen ematean ordaindutako zenbatekoa bere osotasunean 25 euro kenduta itzultzea, data horretarako izena eman duten korrikalari guztiei.

KORRIKALARIEN KOPURU MURRIZKETA

Administrazioak behartzen badu antolakuntza korrikalarien kopurua murriztea, antolakuntzak eskubidea dauka proba bertan behera utzi edo aldatzea lasterketaren eguna.

6. artikulua. Erantzukizun Zibileko Asegurua.

Antolakuntzak erantzukizun zibileko asegurua izango du eta federatu gabeko korrikalari bakoitza haren babespean egongo da indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera.

7. artikulua. Sailkapena.

Proba ezarritako denbora-tartean amaitzen duten parte-hartzaile guztien sailkapena osatuko da.

8. artikulua. Dortsala nola jarri.

Dortsala **bularraldean jarri behar da**, zenbakia eta babeslearen izena ondo ikusteko moduan.

9. artikulua. Antolaketa, probaren garapena eta horitze puntuak.

Antolakuntzak eginahalak egingo ditu lasterketa moduz eta diziplinaz burutu dadin. Gaitutako lantaldea izango da proba zaintzen; GURUTZE GORRIA (SAMU) arduratuko da laguntza medikoa emateaz lasterketa osoan zehar. Laguntza-ibilgailu bat joango da lasterkariekin, sorospen-puntuak izango dira eta HELMUGAN laguntza medikorako eta masajerako gunea izango dira.

Indarrean dagoen araudiak xedatutakoa betez **ibilbidean zehar hornitze likidorako postuak izango dira 5., 10., 15. eta 18,5. kilometroetan, eta helmugan (hornitze guneen kilometrajea zehaztuko da ibilbidea adostu eta gero)**

Proba uzten duten parte-hartzaileek, helmugara heltzeko garraiobidea izango dute aukeran.

10. artikulua. Ekipajeentzako kontsigna.

Parte-hartzaileek arropa antolakuntzak atondutako ibilgailuetan utzi ahal izango dute. Irteera gunearen parean izango dira irteera eman baino ordu erdi lehenagora arte.

Zorroak ondo itxi behar dira, eta dortsaletik ebaki daitekeen zinta itsasgarriarekin izendatu.

Ekipajeak helmuga-eremuan antolatutako gune batean jaso ahal izango dira. Ezingo da ekipajerik jaso dortsalik erakutsi gabe.

*Ez da bolumen handiko boltsa edo maletarik onartuko. (Gehienez 5 kg)

* Antolamendu batzordeak ez du gomendatzen baliozko edo hauskor diren objektuak poltsan edo motxilan uztea eta ez du bere gain hartuko gauzek izan ditzaketen kalteen erantzukizunik. Korrikalariak poltsa edo motxila manipulatze baimena ematen du (ibilgailu haundien zamalanak).

* Poltsen edukiaren erantzukizuna agintarien aurrean poltsari lotutako zerrenda itsaskorrean agertzen den zenbakia duen korrikalariak bakarrik izango du

11. artikulua. Zintzotasuna eta kirol-legea.

Antolakuntzak parte-hartzaileen seriotasun eta kirol-legean sinesten du. Horiek kirolaren arauak errespetatu beharko dituzte, proba osorik egin norbere indarra soilik baliatuta. Debekaturik dago kanpoko edozein laguntza eta gainontzeko parte-hartzaileei traba edo kalte egin diezaiekeen oro. Honekin lotuta, antolakuntzak epaile ofizialak jarriko ditu, irteeran zein ibilbide osoan, arauak bete daitezen bermatu eta errespetatzen ez dituztenen dortsalak jasotzeko.

12. artikulua. IRTEERAGUNEA

Donibane Lohizuneko irteera gunea hesien bitartez mugatuta egongo da. Parte-hartzaileek, beraz, atzeko aldetik heldu beharko dute bertara.

Irteerako guneak

Irteera gune ezberdinak antolatuko dira parte-hartzaileen marken arabera:

- Lehentasun eremu edo gune bat azken bi urteetan gizonezkoen kategorian 1h20' baino gutxiago marka bat egiaztatzen dutenentzat, eta 1h40' baino gutxiagokoa emakumezkoetan.
- 1.gunea: 1h20'-1h39'59" arteko marka egitea aurre-ikusten duten lasterkariak
- 2.gunea: 1h40'-1h54'59" arteko marka egitea aurre-ikusten duten lasterkariak
- 3.gunea: 1h55'-2h09'59" arteko marka egitea aurre-ikusten duten lasterkariak
- 4.gunea: 2h10'-2h45' arteko marka egitea aurre-ikusten duten lasterkariak

13. artikulua. Sariak.

Sari-banaketa **HELMUGAN EGOKITUTAKO GUNEAN** egingo da, 12:00etatik aurrera, ondoko sailkapenaren arabera:

Gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen orokorra.

- 1º 300€
- 2º 200€
- 3º 100€

Beste sari eta opariak.

- ▶ Opariak zozkatuko dira proba amaitzen dutenen artean.

Sariak sari-banaketa egitean jaso beharko dituzte irabazleek. 13:30ak bitarte izango da opariak jasotzeko astia. Sari eta opariak jaso ezean, antolakuntzak haiei uko egingo zaiela ulertuko du.

14. artikulua. Araudia eguneratzea eta interpretatzea.

Epaimahaiak eta antolakuntza-batzordeak, egoerak hala eskatzen baldin badu, araudi hau moldatu edota haren inguruko neurriak hartzeko eskumena dute. Proban parte hartzeak araudi hau onartzea dakar. Aurreikusi gabeko ezer bada arauotan, Frantziako Atletismo Federazioaren edo Gipuzkoako Atletismo Federazioaren arauak hartuko dira erreferentziazat..

15. artikulua. Dortsalak jasotzea.

Honako leku, data eta ordutegiak ezarri dira dortsala zein kontrol-txipak banatzeko:

- ▶ Etxean jasotzeko aukera : dortsala, txipa eta kamiseta korrikalariak adierazitako helbidean jasoko dira, urriaren 15a baino lehen.
- ▶ Gymnase Urdazuri, 1 Av. du Professeur Gregorio Marañon, Donibane Lohizune
 - Ostirala 24ean : arratsaldeko 3etatik 7ak terdi arte
 - Larunbata 25an : goizeko 10etatik arratseko 7ak terdi arte
- ▶ **HONDARRIBIKO JOSTALDI PILOTALEKUAN** ondoko egunetan:
 - Urriaren 24ean 18:00etatik 20:00ak arte.
 - Urriaren 25an 11:00etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 18:30ak arte.

Ezingo da antolakuntzak emandako egiaztagiririk gabe dortsalik jaso.

Ezingo da dortsalarik lasterkaren egunean jaso.

16. artikulua. Debekuak eta mugak.

Debekaturik daude antolakuntzarenak ez diren bizikleta edo ibilgailu motordunak. Lasterketaren jarraipena egingo duten ibilgailu motordun eta bizikleta ofizialek identifikatzeko euskarria izango dute beti bistan.

Era berean, eta segurtasuna dela eta, **debekaturik dago helmugan izena eman gabe dauden adin txikikoekin sartzea**, parte hartzaileen segurtasuna ez ezik, txikiena ere arriskuan jarri bailiteke. Berau betetzen ez dutenak **kanporatuak izan daitezke**.

17. artikulua. Datu pertsonalak uztea.

Donibane Lohiune - Hondarribia Lasterketa Erdi Maratoian izena ematean, parte-hartzaileek onespena ematen dute HONDARRIBIA KIROL TALDEA eta UR JOKO kultura eta kirol elkarteek, euren kasa edo hirugarren erakundeen bitartez,

- a) parte-hartzaileen datu pertsonalak automatikoki eta kirol-helburu zein promozional edo komertzialetarako erabil ditzaten. Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenarekin bat, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategiotara sarbidea izan eta haien edukia, zati batean edo erabat, aldatu edo ezabatzeko. Horretarako eskaera **info@donibane-hondarribia.com** posta elektronikoan egin beharko da. Halaber, proba denbora-mugarik gabe, ezein euskarriren bitartez (Internet, publizitatea...) mundu osoari (lasterketako argazkiak, sailkapenak...) erakusteko kirol, promozio, banatze eta ustiatze interesekin bat, izena emandakoek antolakuntzari euren izen-abizenak, sailkapen orokorrean lortutako postua, kategoria, egindako kirol-marka eta irudia erreproduzitzeko eskubidea uzten diote berariaz.
- b) Lasterketan zehar ateritako eta korrikalaria agertu daitekeen argazkietan edo bideoak erabili ditzaten, sustapenetan barne, eta/edo publizitate-dokumentuetan, mundu osoan eta indarrean dauden legeek, erregelamenduek eta tratatuek aurreikusitako eperik luzeenean, epe horretan egin daitezkeen luzapenak barne.

18. artikulua. Araudiaren onarpena

Parte-hartzaileak araudi honetako artikulua guztiak onartzen ditu, eta konpromisoa hartu, zintzotasunez eta ohorez, irteera-unea errespetatuko duela eta ibilbide osoa egingo duela helmuga-lerroa zeharkatu baino lehen.